# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

## 3659

*EBAZPENA, 2011ko ekainaren 24koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko Balorazio Batzordeko batzarkideak izendatzen dituena eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.*

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 19ko Agindua, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

Kontuan izanda, 2011ko maiatzaren 19ko Aginduaren 8. artikuluaren arabera, aipaturiko dirulaguntzak emateko balorazio-batzorde bat osatuko dela eta batzorde horretako batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez emango dela.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko osatuko den Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzea eta Batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Pello Mirene Gutiérrez Salceda jauna.

– Fernando Pérez Gómez jauna.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratatu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 24a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.